

www.unescoetxea.org

2020

Txostena

NIEVES FERNANDEZ LEHENDAKARIA ARANTZAZU ACHA ZUZENDARIA



Euskal Herriko UNESCO sarearen 6. topaketa. Zumaia, 2020ko uztailak 16

Bazkide horiek,

2020. urtea krisi globalaren aurrean borroka globaleko urte gisa gogoratuko dute belaunaldiz belaunaldi.

COVID- 19 birusaren pandemiak gordintasunez ikusarazi digu herriek, Nazio Batuetan ordezkatuta, gizateriarentzat adosten ditugun helburuak benetakoak eta beharrezkoak zirela, eta eraginkortasunez eta efizientziaz lortu behar ditugula, horretarako 2015ean planetaren iraunkortasuna bermatzeko diseinatutako agenda betez.

Esperientzia global hori hausnarketarako premiazko deia izan da, erantzukizunerako eta aktibismorako deia, banakakoa zein taldekoa.

Gure elkarteak dei horri erantzun dio, eta partaidetza- eta lankidetzatza-formulak proposatu ditugu, bazkideen, barne-taldearen, laguntzaileen, aliatuen, erakunde politiko eta sozialen, erakunde publiko zein pribatuen eta abarren ekarpenak estrategia eraginkor baten bidez **"gizarte-eragile gisa dugun balio-ekarpena handitzeko"** helburuaren aldeko inspirazio gisa erabil zitezen.

Prozesu horrek "izatera" bultzatu gintuen misioa berrikustera eraman gaitu, 30 urteko ibilbidean lortutako esperientzia eta ezagutzatik abiatuta, gizartearen erronka berrien aurrean erantzuna sustatzeko eta asmo horretan aurrera egiteko ikuspegi bat definitzeko.

"Agenda 2030erako ekintzaren hamarkada" honetan, UNESCO Etxeak inoiz baino garrantzi handiagoa izan nahi du, eta garapen iraunkorrean eta giza eskubideetan aurrera egiteko proiektu baliagarriak eskaini nahi ditugu. Horretarako, tokiko eta nazioarteko harreman eta aliantzen esparru bikainetik abiatuta, bereziki NBE eta UNESCO bezalako erakunde aldeaniztunekin, 2030 Agendak guztiak barne har ditzan lagundu nahi dugu.

Erakunde aldeaniztun horien ekintzen hedapena Europan, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan operatiboa izan dadin lagundu nahi dugu, eragileen eta sareen arteko lankidetzak aktibatuz gure proiektuetan.

Hausnarketa-prozesu horrek berretsi egin digu Euskadin bakearekiko eta giza eskubideekiko konpromisoa, UNESCOren balioetatik abiatuta, eta hezkuntzak, zientziak, kulturak eta giza eskubideek herrien garapen jasangarrirako funtsezko elementu gisa duten garrantzia.

Aurrera!

Edizioa: 2021eko ekainak

Bilbao: Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. Tfna: 94 427 64 32

Gasteiz: Zapatarri kalea 8. Tfna: 945 26 41 96

info@unescoetxea.org – www.unescoetxea.org

UN
UNESCO ETXEA
CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNESCO ZENTROA




NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 145 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXEKO ORGANIGRAMA



Gainera:

- 9 Boluntario egoitzan.
- Eusko Jaurlaritzarekin 10 bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan
- BBK Fundazioarekin 2 bekadun en UNESCOren Pariseko egoitzan.



Bazkideen urteko batzarra 2020

EGINKIZUNA, IKUSPEGIA, BALIOAK

EGINKIZUNA

UNESCOren Konstituzioko agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekin eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBERekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituena– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

BALIOAK

Balio hauekin identifikatzen gara:

- Zintotasuna; izan ere, gure zereginak, legezkoa eta etikoa izateaz gain, gure sektoreko jokabide-kode onena bete behar du;
- Partaidetza asertiboa, talde profesionalaren, Zuzendaritza Kontseiluaren, bazkideen eta kolaboratzaileen aldetik;
- Zuzentasuna, eskubide eta betebeharre dagokienez;
- Gardentasuna eta gidaritza egokia, barrura nahiz kanpora begira, jarduerak, zuzendaritza-organoetako kideen izenak eta haiek hautatzeko eta berritzeko modua, ikuskatutako kontuak eta kudeatutako fondoen jatorria urtero argitaratuz;
- Profesionaltasuna, arlo guztietan kalitatez, eraginkortasunez, zehaztasunez eta errespetuz lan eginez;
- Sarean lan egitea, gure konpromisoak tokiko eta nazioarteko sare eta aliantzekin partekatuz;
- Independentzia, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean arituz, baina, betiere, independentziari eutsiz, eta beti gure ideien printzipio eta balioen arabera jokatzuz;
- Pluraltasuna, elkartearen barruan zein gure proiektzio publikoan, gure organo eta lanetan gizarte honen konplexutasuna eta osatzen dugun dibertsitate globala kontuan hartuz.

SARE ETA ALIANTZAK

Sareko lana eta aliantzak funtsezkoak dira gure misioa gauzatzeko, bai tokian bertan, bai nazioartean. Horregatik, sare hauek bultzatzen ditugu:



GUZTIOK BATERA



GIZARTE – Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarea



EHUS – Euskal Herriko UNESCO Sarea

UNESCOREkin eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOREkiko Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- Nazio Batuen Komunikazio Globala Saileko kidea.
- UNESCOREn eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOREkin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Garapen Iraunkorraren Helburuei buruzko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarten eta Kluben Espainiako Federazioa (FECU).
- Federació Catalana d'Associacions i Clubs UNESCO (FCACU).
- UN NGO Major Group.
- UN Women Major Group.
- Together 2030.
- Local Governments for Sustainability (ICLEI).
- European Sustainable Cities Platform.
- Futuro en común.
- Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sarea (REDS-SDSN).
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).

- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea.
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarten Federazioa.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Emakume progresisten federazioa.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Kultur paisaiak eta Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Gironako Unibertsitateko Kultura Politiken UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea.
- Giza Eskubideetan Heitzeko eta Bakearen aldeko Elkarten Foroa.
- Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako 2030 Aliantza.
- BBK Kuna.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserba. UNESCO MaB Programa.
- Universitat Oberta de Catalunya (UOC).
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Guztiok Batera taldea: Munduko Landagunea, Emakumeak Aniztasunean, Gehitu, Euskadiko Emakume Ijitoen Elkarte (AMUGE) eta Euskadiko Gazterien Kontseilua.
- Eusko Ikaskuntza.
- Bilbao Metropoli 30.
- Bilbao Diseinuaren UNESCO Hiria. Hiri Sortzaileen Sarea.
- Novia Salcedo Fundazioa.
- Mujeres con voz elkarte

BEKAK

NBE Bekak

1997tik, Nazio Batuen beken programa kudeatzen dugu, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez finantzatzen dena. 10 pertsonak amaitu dute beka UNESCOk Afrikan eta Latinoamerikan dituen bulegoetan lan egiteko. Horrela, 189 gaztek hartu dute parte programa horretan 1997an abian jarri zirenetik hona.

BBK-UNESCO Bekak

BBK Fundazioak eta UNESCO Etxeak bi nazioartekotze-beka eskaintzen dituzte urtero, lan-esperientzia bat emateko UNESCOREn egoitza nagusian Parisen. Beken 7. edizioari esker, bi pertsona aritu dira lanean sei hilabetez Parisen, UNESCOREn egoitza nagusian, bata Finantza Kudeaketarako bulegoan eta bestea Barne ikuskapen zerbitzuan. (Auditorietza).

Prestakuntza-bekak Urdaibain

Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren laguntzarekin 'Urdaibai beken' 4. edizioari esker, Biosferaren Erreserbari lotutako bi gaztek lau hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte.

Prestakuntza-bekak kultura ondarean

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara eta Kultura Sailaren laguntzarekin gazte batek 4 hilabeteko prestakuntza-praktikak egin dituzte gure Bilboko egoitzan: Ondare Up tresna didaktikoa ezarri eta kultura ondarea nabarmentzeko ekintzak egiten lagundu dute.



BBK – UNESCO nazioartekotze Beken 6 promozioetako bekadunekin topaketa. Paris, 2020ko otsailak 13

PROGRAMAK. Jarduera nabarmenak

2030 AGENDA



Guztiok Batera taldearen 1. bilera.
UNESCO Etxearen egoitza. 2020ko martxoak 3.

Martxoaren 3an **Guztiok batera lantaldea** sortu zen. Talde horren helburua da Euskadiko talde kalteberak identifikatzea, sakon ezagutzera eta indartzea subjektu politiko aktibo gisa, haien ahotsak entzunarazteko eta euskal gizartearen presioa egiteko, eta, bereziki, erabakiak hartzen dituztenak beren konpromisoak betetzera bultzatzeko. Prest egon arren erakunde gehiago bame hartzeko, momentuz, UNESCO Etxeaz gain hauek dira partaideak: AMUGE, Euskadiko Gazteariaren Kontseilua, Munduko Landagunea, Emakumeak Aniztasunean eta Gehitu. Iniziatiba hori sartu da **2030 Agenda ezartzeko eta Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzen laguntzeko gida praktikoa**n, Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Idazkaritza Nagusiak argitaratu duena. *Euskadi 2030 Gunea* taldeko kide gisa hartu dugu parte gida horretan.

Prestakuntzari dagokionez, **online ikastaro espezializatuak** eman ditugu, besteak beste, *"2030 Agenda: sektore anitzeko ikuspegia eta ekintzarako proposamenak"*, *"Zer gertatzen da 2030 Agendarekin? Eragile parte-hartzaileen eta egindako aurrerapenen berrikuspena"* izeneko ikastaroaren bigarren edizioa, Espainiako GGKEen Koordinakundearekin batera; eta *"2030 Agenda eta GIH: bizitzaren zientzien ekarpenak"*, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialarekin batera. Ikastarok eman dizkiegu EHUko ikasleei Gradu Amaierako Lanetan 2030 Agenda ezartzeko, eta prestakuntza-saioak eman ditugu Garapen Jasangariaren eta Ingurumenaren Heziketaren inguruko UNESCO Katedraren baitan, hain zuzen, Ingurumena, Iraunkortasuna eta GIHei buruzko EHUko masterrean eta Zorrotzaurre Art Work in Progress (ZAWP) proiektuan.

2030 Challenge jari dugu martxan. Bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutako tresna interaktibo bat da, eta garapen jasangariaren inguruko ideiak eta estrategiak eskaintzen ditu erronka hezigarri batzuen bidez, xede izanik hausnarketa modu entretengarrian eta hezigarrian bultzatzea. Helbide honetan <https://2030challenge.wordpress.com> aurki daitezke erronkak eta GIHei buruzko informazio orokorra, baita irakasleentzako jarraibideak eta eredu praktikoa dituen gida bat ere.

2030 Agendaren **8 buletin** banatu ditugu. Nazio Batuen infografia euskaratu dugu, 2030 Agenda ezartzean COVID19ak duen eragina azaltzen duena. BBK Behatariarekin batera, 2030 Agendari dagozkion **6 infografia** egin ditugu, Bizkaiko egoerari buruzkoak. June Calsor abeslari eta kompositorearekin ere egin dugu lan Amalur izeneko bere lehen albumean, hain zuzen, GIHetan oinarritzen dena.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin online saio bat antolatu dugu: **"2030 Agenda eragin politiko eta sozialeko tresna gisa"**. Kalteberen eskubideak defendatzeko erakundeek zuzendutako prestakuntza-plan baten baitan kokatzen da, eta eragin politiko eta sozialarekin zenikusia duten berriarazko gaiak lantzen dira, horrela, erakunde horiek ahalmenak eta tresnak jaso eta indartu dituzten.

2030 Agendaren inguruko **hainbat topaketatan hartu dugu parte hizlari gisa**, hala nola, Bilboko "Gazteen 2030 Foroan"; Agire Centeren Etorikizuneko Liderren Prestakuntza Programan; Cadena SER Vitoriak antolatutako *"Encuentros Ser"* topaketetan; eta Deusto Cities Lab Katedraren *"Making Cities 2030 Festival"* ekimeneko epaimahaian izan gara. BBK sasoiko zentroan tailerrak eman ditugu, plan estrategikoan 2030 agenda eta zahartzte aktiboa txertatu dezaten. Halaber, otsailen eta martxoan zehar **GIHen aldeko tailerrak eta kaleko ekintzak** antolatu genituen; parte hartu zuten Gasteizko Carmelitas Sagrado Corazón ikastetxeko eta Amurrioko Amaurre ikastetxeko ikasle eta irakasleek. Ekintza horiek "Gazteak GIHen alde!" bideoan ikus daitezke.

Azpimarratzekoa da, batetik, GIHen kulturak egindako ekarpenari esker martxan jari den lan-ldoa, eta, bestetik, **2030 Agendaren dimentsio kulturala**. Horrez gain, nabarmendu behar da zer-nolako lankidetzak estua izan den REDSen (Garapen Iraunkorreko Espainiako Sarea) Kultura eta Garapen Iraunkorriari buruzko lantaldearekin, baita foroetan parte hartzeko gonbita ere, besteak beste, KulturAraba Bulegoaren 2020ko Topaketetan eta Getxon izandako EDLS #Local Solidarity Days kanpainaren V. edizioan.

KULTURA



OndareUP ekimena. Gau Irekia parte hartzea.
Bilbo. 2020ko abenduak 12.

Aliantza bultzatu dugu artistekin, hezitzaileekin eta kultura-kudeatzaileekin, **GizARTE Sarearen bidez** (Gizarte Eraldaketarako Heziketa Artistikoen Euskal Sarea). Pandemia dela eta, forma eta denbora berriak asmatuz, *"Heziketa eta Arteak klasean"* programa burutu dugu.

ResiliART mundu mailako mugimendua 2020ko apirilean kaleratu zuen UNESCOk, eta, horren baitan, ARTgiarekin batera horren deialdia eta #ResiliART erakusketara bertuala jarri genituen abian, Euskadi-Akintania Euroeskualean somen-jarduera sustatzeko eta artistak errazago promozionatzeko nahiz hedatzeko.

GizARTE sarearen 2. jaialdia online egin dugu, Fair Saturdayren baitan. Jaialdi horretan, sareko hainbat artista eta erakunde, dinamika parte-hartzaile desberdinen bidez, kulturaren inguruko elkartzeketa bultzatu zuten artearen bidez, eta aniztasunetik; elkartzaren berezitasuna eta indarra agerian gelditu ziren.

Hezkuntza, Arte eta Herriartasunari buruzko V. Mintegia antolatu dugu, *"Mugarik gabeko sormena"* izenburupean. Artera eta kulturara jotzen duten profesionalen eta publikoaren aniztasunean jari dugu arreta, eta arte-sorkuntza landu dugu, ezgatasun psikiko edo intelektuala duten pertsonentzako prestakuntza-prozesu eta irteera profesional gisa.

Horretarako, UNESCO Etxeak koordinatu du **zenbait adierazle sortzeko lana**, lehen mailako hezkuntzan heziketa artistikoa eta kulturala garatzeko programak ebaluatu ahal izateko. *"UNESCO Etxearen Lan-koedemoak"* saileko 4. zenbakian argitaratu dira.

"LGTBI+ komunitatearen eskubideak, hilabetez hilabete" **gida didaktikoa** argitaratu dugu, eta hainbat diziplina artistiko eta dagozkien metodologiak balioetsi ditugu sexu- eta genero-aniztasunari lotutako edukiak lantzean, LGTBI+ kolektiboen egunak eta borroka ikusarazteko.

Getxoko Udalarekin batera, **"Getxo aniztasunaren alde"** ekimena jari dugu abian, Getxoko hainbat herritarren lana ikusarazteko, hain zuzen, aniztasunetik herriaren kultura- eta gizarte-garapenean laguntzen dutenak. Lehiaketa bat antolatu dugu diseinatzaile profesionalak ekimen horren irudia sor dezaten. 32 audio grabatu ditugu podcast batean; ivoox.com plataforman eskuragarri dago. Proiektuaren helburua ikus-entzunezko dokumental bat egitea da, esperientzia honetan parte hartu duten pertsona batzuen testigantza sakontzen duena.

Ondare UP ekimenaren baitan bi ikerketa egin ditugu: *'Patrimonio y COVID-19 en Euskadi'* eta *'Educación y patrimonio. Metodologías y buenas prácticas'*. www.ondareup.org web orrialdea beritu dugu, eta Instagramen @ondareup kontua sortu; horren bidez zabaldu genuen #NireOndareUp! argazki-lehiaketa. Bizkaiko Ondareari buruzko Europako Jardunaldiak aurten hezkuntzari eta ondareari buruzkoak izan dira, eta hainbat jarduera eskaini ditugu bertan. Gainera, parte hartu genuen Gau Irekian; Bilbo Zaharra, San Francisco eta Zabalako jaialdian, Ondare Up! Ginkanaren bidez. Urteak Kalean elkarteko gazteekin hausnartu eta sortu genuen, hain zuzen, beraien auzoko ondarearen eta aniztasunaren inguruan.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren laguntzarekin, beka-deialdi berri bat egin dugu, gazteek lan egin dezaten eta ondare eta aniztasun kulturalari balioa eman diezaioten. INTERKULTURA TE dokumentala sortu dugu, Bilboko Udaleko inmigrazio-arfoaren laguntzaz.

HEZKUNTZA



'Etorbizunerako heztea' programan parte hartzea.
Zaragoza. 2020ko otsailak 25

INGURUMENA



'Urak dakarrena, urak darama', antzerki-foroa Yokerendan Antzerki Taldearen eskutik.
Hika Ateneo. Bilbo. 2020ko irailak 19

Bakearen kultura eta giza eskubideak sustatzen jarraitu genuen 2020an; batetik, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueren bidez, eta, bestetik, parte hartuz UNESCOren **Eskola Elkartuen Munduko Sarean** (PEA Sarea). Izan ere, sare horren parte dira EAEko 9 ikastetxe.

UNESCOren *"Garapen Iraunkorreko Helburuetarako Hezkuntza. Ikaskuntza-helburuak"* izeneko **gidaren laburpena euskaraz** argitaratu dugu. Gida horrek biltzen ditu garapen iraunkorreko hezkuntza-eredu batean ikasleek garatu behar dituzten oinarizko gaitasunak. Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasle eta ikasleei zuzenduta, Eskubideak gida didaktiko interaktiboa diseinatu dugu. Bertan, "Dame un minuto de..." lehiaketan saritutako bideoak erabili ditugu, giza eskubideei buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatzeko ikasleen artean.

"BILAKA. Gizartea eraldatzeko hezkuntza eraldatu" izeneko dokumentala zabaldu dugu. Dokumental horrek EAEko 9 ikastetxeren esperientzia jasotzen du, gizartea aldatzen laguntzen duten eredu pedagogikoak eta hezkuntza-proiektuak azalduz.

"Alda dezagun planetaren norabidea... Mugitzaitez GIHen alde" kanpaina jarri dugu abian, Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle eta irakasleei zuzendua. 2030 Agendari buruzko informazio-taillerrak jaso ondoren, zazpi ikastetxetatik etorritako 500 gazteak Guggenheim Bilbo Museoa bildu ziren, 2030 Agendari ematen dioten babesa flashmob baten bidez adierazteko. Isaak Aranberri dantzariak koreografiatu zuen ekimena, eta abestia *"Inor ez atzean"* izan zen; Maddalen Arzallusek egin zuen abestiaren letra, eta Eñaut Gaztainagak eta Itzal Urangak musika.

aiPAZ 2020 Jardunaldiaren parte hartu genuen, eta hezkuntza defendatu genuen gizarte justuak, baketsuak eta inklusiboak sustatzeko tresna gisa.

"2030 Agenda gizartea eraldatzeko tresna gisa hezkuntzaren arlotik" txostenarekin, Ibercaja Fundazioaren 2020ko **Etorbizunerako Heztea programan** parte hartu genuen, GIHak aldatetaren eragile gisa hezkuntzan ezartzeak duen garrantzia defendatzeko.

"Eta giza eskubideak ez badira uste bezala? Desberdin begiratzeko gonbidapena" online konferentzia antolatzen lagundu dugu; Mikel Mancisidoren eskutik, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País -Comisión Bizkaia eta Mendebaldeko Europarako Nazio Batuen Informazio Zentro Erregionalaren (UNRIC) laguntzaz.

"Klima-krisia. Giza eskubideak mehatxatuta" gida argitaratu dugu, krisi klimatikoaren eta giza eskubideen arteko harremanak eta loturak argitzen laguntzeko. Talde kallebera batzuetan jarri dugu arreta, eta ikusarazi dugu Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako lankidetzan lan egiten dela giza eskubideen eta krisi klimatikoaren arteko harremana ikusten lagun dezaketelako proiektuetan. Horretarako, ikerketa parte-hartzailea egin dugu Zabalketa, Tradener eta Anesvadekin, lankidetzan, garapenean eta gizarte-mugimenduetan diharduten eragileekin. Besteak beste, Bolivia, Guatemala, Mendebaldeko Sahara edo Saharaz hegoaldeko Afrikan izandako lan-esperientziatik egin dituzte ekarpenak.

Bilboko Hika Ateneoan eta Getxoko Utopian antolatu ditugu **"Urak dakarrena, urak darama" Antzerki Foroaren** saioak, Yokerendan Antzerki Taldearen eskutik. Klima-krisiak arriskuan jartzen du hairbat giza eskubidez gozatzea; hala nola, bizitzeko eskubidea, osasuna, ura, janaria edo etxebizitza. Eta, kontrako noranzkoan, aurre egin ahal izateko, giza eskubideak baliatu behar ditugu, besteak beste, informazioa izateko eskubidea eta parte hartze eskubidea. Horrela, eta uran arreta jarri giza eskubide gisa, migratu duen pertsona bat, Friday for Future mugimenduko gazte bat, ama langile bat eta lan prekarioa duen gazte bat agertzen zaizkigu antzerki-foro horretan, bakoitzaren eguneroko egoera arunt bat erakusten. Publikoaren esku dago egoera hori errepikatzea edo aldatzea, aurre egiteko modu ezberdinak bilatuz.

Laugarren urtez, **Urdaibai bekak** eman genituen. Haiei esker, Biosferaren Erreserbari lotutako bi gaztek zortzi hilabeteko prestakuntza-praktikak egin zituzten.

Euskadin iraunkortasunaren alde egiten den lana nazioartean zabaltzeko dugun egitekoari eutsiz, sareetan dugun presentzia baliatu dugu **Euskal Adierazpena** – Europako hiri eta herrietarako bide-ori berria eta Udalsarea 21en lana ezagutarazteko. Aran Acha gure zuzendaria epaimahaikide izan zen ICLEI-k (iraunkortasunaren aldeko tokiko gobernuen Europako sarea) antolatutako **Ekintza Eraldatzailearen Sariaren**.

Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa proiektua euskal gizartera hurbiltzen jarraitu dugu. 2020an zehar bi ikastaro hauek egin ditugu online: "Ekosistemen zerbitzuak eta giza ongizatea Euskadin" ikastaroaren 5. edizioa eta "Ekosistema eta azpiegitura berdeen zerbitzuak" ikastaro aurreratuaren 1. edizioa. Gainera, hairbat material sortu genuen: jarduerak zabaltzeko hiru buletin, buletin berezi bat proiektuko material didaktikoekin, "Natura eta ongizatea Bilboaldeko Ingurune Berdean" bideoa eta ekosistemen zerbitzuei buruzko baliabide didaktiko gamifikatu bat.

Aktiboki hartzen dugu parte **Pobreziaren aurkako borrokan ingurumen jasangaritasunaren Sarean**, eta BerrAktibatuz programa bultzatzen dugu, ingurumenaren iraunkortasunaren aldeko heritarren parte-hartzea sustatzeko ekimena.

Bizkaierd Bizkaia Sarean 2020 saria irabazi genuen jasangaritasunaren kategorian, eta Bizkaiko Sareko Enpresen Elkarteak emana.

2020ko ARGITALPENAK www.unescoetxea.org eta www.youtube.com/unescoetxeapv -en eskuragarriak

- 2030 Challenge. 2. hezkuntzako ikasleentzako erronkak.
- Gida didaktikoa. LGBTI+ komunitatearen eskubideak hilabetez hilabete.
- Klima-krisia. Giza eskubideak mehatxatuta.
- Patrimonio y educación.
- Patrimonio y COVID-19.
- Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako Hezkuntza. Ikaskuntza-helburuak.
- Gizarte eraldaketarako arte eta kultura arloetako hezkuntza-programen ebaluaziorako adierazleak.

Jarduera horien **39 bideo**: **Gazteak GIH-en alde** | 'Urak dakarrena, urak darama' antzerki-foroa

Eman Minutu 1 Duintasunaren alde | 'Hezkuntza, Arteak eta Herritartasuna' mintegia
'Alda dezagun planetaren norabidea... mugi zaituz GIH-en alde'

GizARTE sarearen 2. jaialdia | BILAKA. Hezkuntza eraldatu gizartea eraldatzeko
Inor ez atzean - Koreografiak | NBEko 75. urteurrena



EKITALDI NABARMENAK

1 NAZIO BATUEN 75. URTEURRENA

Nazio Batuen 75. urteurrena ospatzeko, mundu osoko ehunka erakin urdinez argiztatu ziren 2020ko urriaren 24an.

UNESCO Etxearen ekimen eta laguntzarekin, hainbat euskal erakunde publikotako erakinek NBEren koloreko fatxada tindatu zuten, erakundearekiko eta 2030 Agendarekiko konpromisoa erakutsiz.

Ospakizun honekin bat eginez, gure egoitza ere argiztatu eta 3 bideo kaleratu genituen. Bideo horietan, gure presidentek Nieves Fernándezek eta gure Ohorezko bazkideek Federico Mayor Zaragozak eta Silvia Escobarrek elkarriketaren eta lankidetzaren garrantzia berretsi zuten, erronka globalen aurrean.

2 EHUS- EUSKAL HERRIKO UNESCO SAREAREN 6. TOPAKETA

Uztailaren 15ean EHUS - Euskal Herriko UNESCO sarearen 6. topaketa izan zen Zumaien.

UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordearen Idazkari nagusiak, belen Llerak, eta sareko 19 erakundeetako ordezkariak parte hartu zuten.

Biltzar horretan aurkeztu eta onartu ziren 2020rako plana eta helburuak. Topaketan, 2020rako plana eta helburuak onartu ziren, eta erronka nagusien artean nabarmendu zen Sarearen errotzea finkatzea eta ezagutaraztea, pandemiak jotako krisi globalari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, gizartea eraldatzeko formulak aurkitu behar direla azpimarratuz.

3 'EMAN MINUTU 1' LEHIAKETA

2020an, 11. edizioan, lehiaketak 'Eman Minutu 1 Askatasunaren alde' izena hartu zuen.

Askatasun eta berdintasunerako eskubide unibertuala defendatzen duten Minutu bateko ikus-entzunezko pieza onenak saritu genituen eta, beraz, guztiok izan behar dugula osoki aintzat hartuak eta errespetatuak gizartean, inolako bereizketarik egin gabe arraza, genero, jatorri, adin, gizarte-klase edo sexu-orientazioagatik.

Aurtengo edizioan errekorra hautsi da, Euskaditik nahiz Gaztela eta Leondik, Aragoitik eta Hungariatik jasotako 99 bideo aurkeztu baitira lehiaketara.

Informazio gehiago: <https://dame1minutode.org>



4 'PIEZAS' DOKUMENTALAREN ESTRAINALDIA

Urtarrilaren 17an Getxoko Romo Kultur Etxean, 'Piezas' dokumentalaren estrainaldia izan zen Mikel Unzue eta Koldo Perezek, 'Eman Minutu 1 hezkuntzaren alde' lehiaketako VIII. Edizioaren irabazleak sortutakoa.

Dokumentala heziketak eraldaketa sozialean duen garrantziaz hausnartzen du.

Pertsonai errealek ageri dira, heziketarekin erlazio ezberdina duten hainbat agente esperientzia propioak kontatuz, leku ezberdinetako ahurrak, ikertzaileak, irakasleak, familiak.

Nyanga De Gomendiourrutia, Vinilo FM Irratiko, izan zen ekitaldiaren aurkezlea.



DATU EKONOMIKOAK

GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu.

Kontu-ikuskaritzaren txostenak 'Gardentasuna' atalean www.unescoetxea.org web gunean daude.

2020ko Auditoriaren txostena



LKS AUDITORES, S.L. S. L. P.
C/Alfonso de Euzkadi, 100, 4º planta
48901 Leizor (Bizkaia)
T. 945 22 7400
F. 945 22 7401
www.unescoetxea.org

INFORME DE AUDITORIA DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

Al Consejo de Gobierno de UNESCO ETEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO.

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de UNESCO ETEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO (la Entidad), que componen el balance abreviado a 31 de diciembre de 2020, la cuenta de resultados abreviada, y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas ajustan expusim, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2020, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigentes en España. Nuestra responsabilidad de acuerdo con dichas normas se describe más adelante en la sección Responsabilidad del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas de nuestro informe.

Seamos independientes de la Entidad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En ese sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de auditoría de cuentas ni han ocurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que no haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.



UNESCO ETEA - CENTRO UNESCO DEL PAÍS VASCO

Informe de auditoría de cuentas anuales abreviadas emitido por el auditor independiente
a 31 de diciembre de 2020

• Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por el Consejo de Gobierno.

• Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por el Consejo de Gobierno, del principio contable de empresa en funcionamiento, y basándonos en la evidencia de nuestra auditoría, consultamos sobre si existe o no una interrelación material relacionada con hechos o con condiciones que puedan generar dudas significativas sobre la capacidad de la Entidad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una interrelación material, se requiere que haremos la auditoría en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestra conclusión se basa en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Si, en cambio, los hechos o condiciones citados pueden ser la causa de que la Entidad deje de ser una empresa en funcionamiento.

• Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales abreviadas representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Not comunicamos con el Consejo de Gobierno de la entidad en relación con, entre otros asuntos, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificada y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a Consejo de Gobierno de la entidad, describimos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del período actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerables más significativos.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.


LKS AUDITORES, S.L.P.
Inscrita en el R.O.A.C. N.º 31054



M.º Mercedes Pascual Maestre
Inscrita en el R.O.A.C. N.º 18.942
14 de mayo de 2021

Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

SARRERAK GUZTIRA 2020	843.741,00€	
Ekarpen pribatuak	136.163,69 €	%16,14
Ekarpen publikoak	707.577,31 €	%83,86




- Bazkideak
- Erakunde pribatuak
- Diru-sarrera propioak (dohaintzak, publizitate balioespina...)
- Eusko Jaurlaritza (*)
- Aldundiak (BFA-GFA-AFA)
- Udalak (Bilbo, Getxo, Donostia, Gasteiz)
- Beste batzuk (lokalen lagapenaren amortizazioa)
- Atzerri Arazoetako Ministerioa

(*) Eusko Jaurlaritza:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia %41,81; Ekonomiaren Garapen, Jasangaritasun eta Ingurumen Saila %8,30; Hezkuntza Saila %4,27; Giza Eskubide, Biktima eta Ariztasun Zuzendaritza %3,37

Programetako gastua

GASTUAK GUZTIRA 2020	842.797,37€
-----------------------------	--------------------



- 2030 Agenda eta Nazio Batuak
- Ingurumena programa
- Kultura programa
- Hezkuntza programa
- Kudeaketa orokorra
- Lokalen amortizazioa
- UOC zerbitzuak

Egoera-balantzea 2020

AKTIBOA	
Aktibo ez-zirkulatzailea	67.421,22
Aktibo zirkulatzailea	417.706,56
Aktiboa guztira	483.127,78

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
Ondare garbia	405.831,25
Fondo propioak	61.752,43
Diru-laguntzak, dohaintzak, lagapenak	344.078,82
Pasibo zirkulatzailea	77.296,53
Ondare garbia eta pasiboa guztira	483.127,78

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2020an laguntza eman baitigute giza garapen iraunkorraren alde lanean jarraitzeko.

Instituzioari diruz laguntzen diote:
 ■ Laboral Kutxa.

Egitasmoetan laguntzen dute:
 ■ BBK Fundazioa.
 ■ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.

Baliabideak uzten dituzte:
 ■ Diario El Correo.
 ■ Diario de Noticias de Gipuzkoa.
 ■ Diario de Noticias de Álava.
 ■ EITB.